

Urtarrilaren 6aren ondorengo igandea
JAUNAREN BATAIOA (B)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
 Kristo Jordango uretan bataiatua izan zenean
 eta Espiritu Santua Haren gainera jaitsi zenean,
 goraki aitortu zenuen Bera dela zure Seme maitea;
 emaiezu,
 uretik eta Espiritu Santuagandik jaio diren zure semetzakoei,
 zeure nahia betetzen irautea.
 Zure Seme Jesu Kristo.

Edota:

Jainko Jauna, zure Semea gizon eginik agertu zitzaigun;
 egizu, gizatasunean gure antzeko egin zenak
 barrutik Beraren antzeko egin gaitzala.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Is 42, 1-4. 6-7

*Hona, nire zerbitzaria,
 atsegin zaidan nire aukeratua.*

Isaias Profetaren liburitik

Honela mintzo da Jauna:
 «Hona, Nik eusten diodan nire zerbitzaria,
 atsegin zaidan nire aukeratua.
 Honengan ipini dut nire espiritua:
 berak ekarriko die zuzenbidea atzerriei.
 Ez da deiadarka ariko, ez du oihuka hitzegingo,
 ez du kaleetan entzun eraziko bere mintzoa.
 Kainabera pitzatua ez du hautsiko,
 doi-doi biztua dagoen metxa ez du itzaliko.
 Zuzenbidea ekarriko du;
 ez du etsiko, ez da hautsiko,
 zuzenbidea lurrean ezarri arte,
 uharteek itxaron duten Haren legea jarri arte.
 Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut,
 eskutik hartu zaitut;
 herri baten elkargo izateko,
 atzerrien argi izateko aukeratu zaitut,
 itsuen begiak zabal ditzazun,
 giltzapetuak espetxetik atera,
 eta gartzelako ilunbetan daudenak aska ditzazun».

ERANTZUN SALMOA: Sal 28, 1-2. 3ac-4. 3b eta 9c-10

R/. **Bere herria bedeinkatuko du
bake emanez Jaunak.**

Eman, Jainko seme-alabok, Jaunari,
eman ospe eta indar Jaunari.
Eman ospe Jaunari bere izenaren ederrez,
jauretsi Jauna apainduri deunez. R/.

Horra Jaunaren mintzoa ur gainean,
Jauna ur ugarien gainean.
Jaunaren mintzoa indartsu,
Jaunaren mintzoa ospetsu. R/.

Jainko itzalgarriaren hostotsa durundan,
Haren jauretxean denek diote: Gora!
Eresi da Jauna uholde gainean,
Jauna errege eseriko betierean. R/.

II. IRAKURGAIA: Ap Eg 10, 34-38

*Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez
gantzutu zuen Jesus.*

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo seme-alabei bere hitza, eta guztien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen berri ona eman zien.

Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio ondoren: Nazareteko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua; eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin baitzegoen».

EBANJELIOA: Mk 1, 6b-11

Aleluia: Ik. Mk 9, 6

R/. Aleluia.

V/. Zerua zabaldu zen eta Aitaren ahotsa entzun zen:
«Hau da nire Semea, nire Maitea.
Entzuiozue». R/.

*Zu zara nire Semea, nire Maitea;
Zuregan dut neure atsegina.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, honela hotsegiten zuen Joanek: «Nire ondoren dator, ni baino ahaltuagoa dena, ni ez bainaiz inor, makurtuta, Haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bataiatu zaituztet; Hark, ordea, Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte».

Egun haietan, Galileako Nazaretetik etorri zen Jesus, eta Joanek Jordanen bataiatu zuen. Eta berehala, uretatik ateratzekoan, zerua urratzen ikusi zuen, eta Espiritu Santua uso irudian bere gainera jaisten. Eta zeruko mintzo batek honela esaten zuen: «Zu zara nire Semea, nire Maitea; Zuregan dut neure atsegina».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, gure dohain hauek,
zeure Seme maitea agertu diguzun egun honetan;
eta iguzu, zure zerbitzarien eskaintza hau
munduko bekatua garbitu zuenaren opari egin dadila.
Jesu Kristo.

Prefazioa: *Jesusen misterioaren agerpena Jordan ibaian.*

V/. Jauna zuekin.

R/. **Eta zure espirituarekin.**

V/. Gora bihotzak.

R/. **Jaunagan dauzkagu.**

V/. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

R/. **Egoki da eta zuzen.**

Egoki da, bai, eta zuzen
nonnahi eta beti Zuri eskerrak ematea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Seinale miragarritz ezagutarazi duzu gaur
Jordan ibaiko Bataio berria;
zerutik jaitsitako hitzak jakin erazi du
zure Hitza gizakien artean dagoela;
eta Espiritu Santuak, uso itxuran agertuz, adierazi digu
Jesus, zure zerbitzaria, dela Mesias,
behartsuei berri ona ekartzera bidalia.

Horregatik, zeruko talde guztiekin,
lurrean beti eta beti goresten zaitugu,
Zuri, Jainko guztiz haundi Horri,
etengabe [esanez] kantatuz:

Santu, Santu, Santua...

Jaunartze ondorengoa

Dohain santu hauez aserik, Jauna,
zure errukiari dei egiten diogu:
egin gaitzazu zeure Semearen hitzaren entzule zintzo,

izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitzen.
Jesu Kristo.